

# **BURTSAKO HIZTEGIA**



## BURTSAKO HIZTEGIA

### **Kronika:**

Bilboko Burtsaren zuzendaria den Jose Luis Damborenea Ortiz de Zarate jaunak, 1991.eko maiatzaren 28an Euskaltzaindiari idatzitako gutun batekin batera, burtsako hitzen eta esaldi teknikoen errolda bat igorri zion, euskarara itzultzea eskatuz, Kotizazioko Buletinean argitaratzeko eta aurrerantzean bertan erabiltzeko asmotan.

Euskaltzaindiak maiatzaren 31an Baionan egin zuen osoen bilkuran, Jose Antonio Arana Martija euskaltzaina izendatu zuen gai hau burutzeko arduradun, eta bileraren agirian agertzen denez, “E. Erkiaga eta X. Gereño gai horietan ikasiak direnez, beren esku utzi da eginkizun hau”. Bileratik kanpo, eta batzordeño suntsikor hau osotzeko, Gurutz Ansola, burtsa-gaietan jakitun den jauna ere proposatu zuen Arana Martija jaunak, Zuzendaritzak izendapena onartu zuelarik.

Bilboko Burtsatik jasoniko zerrenda igorri zien batzordekideei arduradunak, eta uztailaren hogeirako jadanik eskuratuak zituen hiru kidek egindako itzulpenak. Honen berri eman zuen Arana Martija euskaltzainak uztailaren 26an Donostian egindako osoen bilkuran, honako hau erabaki zelarik: “Oharrik egin nahi duenak aurretik egin beza. Desberdintasunak bateratu ondoren zerrenda batua ekarriko zaio Euskaltzaindiari azken begiratua emateko”.

Aipatu azken bilkuran egindako zuzenketa batzuk kontutan izanik, eta lau batzordekideen itzulpenekin, lauki bat prestatu zuen arduradunak eta zalantzan zeuden hitz eta esaldi teknikoen esangurak argitzeko, Antonio Truan, Burtsaren idazkariarekin elkarrizketa luze bat izan zuen uztailaren 17an. Argibideak izan ondoren, eta behar ziren aldaketak eginda, irailaren 27an Donostian egindako osoen bilkuran aurkeztu zituen berriz arduradunak lauki batean, gaztelaniazko eta lau itzultzaileek eginko lana. Hara hor batzarraren erabakia: “Burtsa-hiztegiari buruz batzordeñoako lau partaideek egindako proposamenak aurkeztu ditu elkarrekin parekatuz J.A. Arana Martija arduradunak. Zerrenda horietako hitzak

izenburu bezala ontzat eman arren, izen sintagma mailan nola erabili behar diren ez dela esaten, aditzera eman du P. Salaburu jaunak. Euskaltzaindiak ezin ditu izen guztiak berrikusi, hitz batzuen esanahia ezagutzen ez duelako, besteak beste. Batzordeñoak espezialista batekin denon iritziak bateratzea eskatu du batzarreak, eta berauen ustez duda-mudakoak diren hitzak ikusiko dira euskaltzainen artean. Batzordeñoa bildu aurretik bilduma honen kopia bidaliko diola bakoitzari esan du J.A. Arana Martijak”.

Erabakiaren arabera, lauki berri bat igorri zitzaien batzordekideei eta azaroaren 15 eta 25 bitartean jaso zituen arduradunak beste hiru kideen eritziak. Denak kontutan izanik zerrenda bateratu bakar bat prestatu zuen arduradunak eta Donostian, azaroaren 29an osoek eginiko bilkuran aurkeztu zuen. Erabakia honako hau izan zen: “Berriro Burtsa-hiztegia aurkeztu du J.A. Arana Martijak, dagokion batzordeñoaren izenean. Zalan-tzako zenbait puntu banan-banan aztertu ondoren, begi onez ikusten da azkenean zerrenda hori, eta *Euskera* aldizkarian argitaratuko da.”

Onartutako itzulpen hori Bilboko Burtsara igorria izan zen 1991.eko abenduaren 30ean, eta 1992.eko urtarrilaren 2an eskerroneko gutun bat jaso izan da, Burtsaren Zuzendariak sinatua.

*Bilbon, 1992.eko urtarrilaren 9a  
Jose Antonio Arana Martija*


**Bolsa de Bilbao**

Jose Luis Damborenea Ortiz de Zarate  
Consejero - Director General

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA <b>EUSKALTZAINDIA</b> BILBO - Enregistro orokorra  1991 <b>MAL 29</b> SAREERA Zenb. <u>571</u>
---

**EUSKALTZAINDIA**  
*Real Academia de la Lengua Vasca*  
 Sr. D. Jean Haritschelhar  
 Presidente  
 Elcano, nº 5  
48011-BILBAO.

Bilbao, 28 de Mayo de 1.991

Muy Sr. mío:

Con motivo de la renovación del Boletín de Cotización de ésta Bolsa, al efecto de adaptarlo a las necesidades que la nueva estructura del mercado demanda, es mi intención proceder a su difusión bilingüe.

Esta firme intención creo que servirá además para llevar nuestra lengua hacia aquellos sectores sociales, que como el financiero, mantienen vocablos propios y diferenciados y en los que hasta ahora los procesos de inmersión apenas han hecho notar la presencia del Euskera.


Entiendo, por otro lado, que la difusión que nuestro boletín mantiene y los sectores y personas a las que llega, pueden ser un acertado vehículo de transmisión y acercamiento de nuestra lengua, coadyuvando a la sintonía que debe existir entre los ciudadanos y su lengua como rasgo inequívoco de identidad de un Pueblo.

Por todo ello le dirijo la presente y le adjunto como anexo una serie de términos o vocablos cuya traducción exacta nos es necesaria, dado que en algunos casos o bien no existe acuerdo sobre su traducción específica por los Euskera-parlantes consultados o en su caso, no alcanzan su traducción.

Mucho le agradecería, nos facilitase su traducción bajo su autoridad lingüística que, no dudo contribuirá, de nuevo, al enriquecimiento de nuestra lengua con términos actuales y de frecuente uso con el mundo bursátil.

Sin otro particular queda a su disposición, afectuosamente,

SOCIEDAD RECTORA DE LA BOLSA DE VALORES DE BILBAO, S. A. 28.05.91 001498 <b>SALIDA</b>
--





## BURTSAKO HIZTEGIA

*Euskaltzaindiak, Donostian  
1991-XI-29an onartua*

- |  |   |
|--|---|
| 1. Efectos públicos                                  | <i>Efektu publikoak</i>                                     |
| 2. Obligaciones                                      | <i>Obligazioak</i>  |
| 3. Acciones  | <i>Akzioak</i>  |
| 4. Bonos   | <i>Bonoak</i>   |
| 5. Bonos convertibles                                | <i>Bono bihurtgarriak</i>                                   |
| 6. Obligaciones simples                              | <i>Obligazio soilak</i>                                     |
| 7. Obligaciones hipotecarias                         | <i>Hipotekadun obligazioak</i>                              |
| 8. Bonos cupón cero                                  | <i>Zero kupoiko bonoak</i>                                  |
| 9. Cédulas hipotecarias                              | <i>Zedula hipotekadunak</i>                                 |
| 10. Deuda amortizable (Canjeada 1969)                | <i>Zor amortizagarria (1969an trukatu)</i>                  |
| 11. Obligación amortizable interior                  | <i>Barne obligazio amortizagarria</i>                       |
| 12. Bono amortizable interior                        | <i>Barne bono amortizagarria</i>                            |
| 13. Deuda desgravable del Estado (de Euskadi)        | <i>Estatuaren zor zergarigarria (Euskadiren)</i>            |
| 14. Deuda perpetua interior                          | <i>Barne zor epegabea</i>                                   |
| 15. Deuda pública de Euskadi                         | <i>Euskadiren zor publikoa</i>                              |
| 16. Bonos forales                                    | <i>Foru bonoak</i>  |
| 17. Letras forales al descuento                      | <i>Foru letra deskontagarriak</i>                           |
| 18. Letras forales sin retención para no residentes. | <i>Egoiliar ez direnzentzako foru letra atxikipengabeak</i> |
| 19. Empréstito del Gobierno Vasco nominado en Ecus   | <i>Ecutan baloratutako Eusko Jaurlaritzaren jesapena</i>    |
| 20. Obligaciones (Bonos) exentas                     | <i>Obligazio (Bono) liberatuak</i>                          |
| 21. Obligación serie B (5. emisión)                  | <i>B herrenkadako obligazioa (5. jaulkipena)</i>            |
| 22. Acciones sin voto                                | <i>Botogabeko akzioak</i>                                   |
| 23. Derecho de suscripción (preferente)              | <i>Erospidetza eskubidea (lehentasunduna).</i>              |
| 24. Plazo de suscripción                             | <i>Erospidetza epealdia</i>                                 |
| 25. Proporción de la ampliación                      | <i>Anpliazioaren proportzioa</i>                            |

26. Valor teórico del derecho de suscripción	<i>Erospidetza eskubidearen balio teorikoa</i>
27. Desembolso	<i>Ordainketa</i>
28. Número de cupón	<i>Kupoi zenbakia</i>
29. Dato de la ampliación	<i>Anpliazioaren datua</i>
30. Nominal por título	<i>Tituluka nominala</i>
31. Ampliación de capital	<i>Kapitalaren handitzea</i>
32. Dividendos activos anunciados	<i>Jasotzeko dibidendo iragarriak</i>
33. Dividendos pasivos anunciados	<i>Ordaintzeko dibidendo iragarriak</i>
34. Dividendos complementarios anunciados	<i>Dividendo osagarri iragarriak</i>
35. Derechos negociados	<i>Eskubide negoziatuak</i>
36. Calendario de suscripción	<i>Erospidetzen egutegia</i>
37. Calendario de cancelación y liquidación	<i>Kitapen eta zuritze-egutegia</i>
38. Avance de volumen de negociado	<i>Kopuru negoziatuaren aintzinberria</i>
39. Pesetas negociadas	<i>Negoziatutako pezetak</i>
40. Mercado de crédito	<i>Kreditu merkatua</i>
41. Final diferencia inicial	<i>Hasieratik azken diferentzia</i>
42. Final diferencia primera prórroga	<i>1.luzapeneko azken diferentzia</i>
43. Final diferencia segunda prórroga	<i>2.luzapeneko azken diferentzia</i>
44. Condiciones aplicar préstamo de títulos	<i>Tituluen mailegurako baldintzak</i>
45. Precio semana de contratación	<i>Kontratazio asteko prezioa</i>
46. Beneficios a partir de 1-1-92	<i>1991.1.1. geroztik irabaziak</i>
47. Acciones nuevas (novísimas)	<i>Akzio berriak (oso berriak)</i>
48. Índice bursátil	<i>Burtsako indizea</i>
49. Mercado continuo	<i>Etengabeko merkatua</i>
50. Índice mercado continuo	<i>Etengabeko merkatuaren indizea</i>
51. Índice Fiex 35	<i>Fiex 35 indizea</i>
52. Índice Bolsa de Bilbao	<i>Bilboko Burtsaren indizea</i>
53. Base del índice	<i>Indizearen oinarria</i>
54. Índice ponderado	<i>Indize orekatua</i>
55. Mercado de opciones negociables sobre acciones	<i>Akzioekiko aukera negoziagarrien merkatua</i>
56. Mercado de opciones negociables sobre Índice Fiex 35	<i>Fiex 35 indizearekiko aukera negoziagarrien merkatua</i>
57. Opciones de compra	<i>Erosteo aukerak</i>
58. Opciones de venta	<i>Saltzeko aukerak</i>
59. Precio de la opción (premio)	<i>Aukeraren prezioa (saria)</i>
60. Operación de doble (report)	<i>Eragiketa bikoitza (Reporta)</i>



- |  |  |
|--|--|
| 61. Cancelación de títulos valores                         | <i>Baloredun tituluen kitapena</i>                             |
| 62. Servicio de anotaciones en cuenta                      | <i>Kontuetako anotazioen zerbitzua</i>                         |
| 63. Liquidación de títulos                                 | <i>Tituluen likidazioa</i>                                     |
| 64. Compensación de efectivo                               | <i>Eskudiruzko ordainpidea</i>                                 |
| 65. Mercado de futuros financieros                         | <i>Geroko finantz merkatua</i>                                 |
| 66. Sociedad de inversión mobiliaria de capital variable   | <i>Kapital aldakorraren inbertsio higigarrietarako elkarte</i> |
| 67. Sociedad de inversión mobiliaria de capital fijo       | <i>Kapital finkoaren inbertsio higigarrietarako elkarte</i>    |
| 68. Fondos de inversión                                    | <i>Inbertsio fondoak</i>                                       |
| 69. Sociedad gestora del fondo                             | <i>Fondoaren elkarte kudeatzailea</i>                          |
| 70. Valor liquidativo del fondo                            | <i>Fondoaren balio likidagarria</i>                            |
| 71. Patrimonio valorado                                    | <i>Ondare baloratua</i>  |
| 72. Segundo mercado bursátil                               | <i>Bigarren burtsa merkatua</i>                                |
| 73. Sociedad depositaria de títulos                        | <i>Tituluen elkarte gordetzailea</i>                           |
| 74. Corro (Parquet) de contratación                        | <i>Kontratazio gunea (Parketa)</i>                             |
| 75. Opciones sobre el índice Fiex 35                       | <i>Fiex 35 indizearekiko aukerak</i>                           |
| 76. Futuros sobre índice                                   | <i>Indizeaz gerorako balioak</i>                               |
| 77. Futuros sobre acciones                                 | <i>Akzioez gerorako balioak</i>                                |
| 78. Operaciones bursátiles a plazo                         | <i>Burtsa-eragiketa epedunak</i>                               |
| 79. Supervisión del mercado                                | <i>Merkatuaren gainkustea</i>                                  |
| 80. Circular de la comisión de contratación                | <i>Kontratazio batzordearen adierazpena</i>                    |
| 81. Cláusula antidilución                                  | <i>Balio ezezagunaren aurkako klausula</i>                     |
| 82. Reversibilidad de la representación de títulos valores | <i>Balore tituluen ordezkatzearen itzulgarritasuna</i>         |
| 83. Oferta pública de adquisición (venta) de acciones      | <i>Akzioen erosketarako (salmenta) eskaintza publikoa</i>      |
| 84. Tomas de razón   | <i>Salmenta finkoaren erregistroa</i>                          |
| 85. Operaciones autorizadas                                | <i>Eragiketa baimenduak</i>                                    |
| 86. Aplicaciones   | <i>Aplikazioak</i>   |
| 87. Posición de papel sin operaciones                      | <i>Eragiketa gabeko papera jartzea</i>                         |
| 88. Posición de papel con operaciones                      | <i>Eragiketarekin papera jartzea</i>                           |
| 89. Posición de dinero sin operaciones                     | <i>Eragiketa gabeko dirua jartzea</i>                          |
| 90. Posición de dinero con operaciones                     | <i>Eragiketarekin dirua jartzea</i>                            |
| 91. Operación en firme                                     | <i>Eragiketa finkoa</i>  |
| 92. Operación a voluntad                                   | <i>Nahimenezko eragiketa</i>                                   |

93. Prima (con)	<i>Sariduna</i>
94. Operaciones fuera del horario del mercado continuo	<i>Etengabeko merkatuko orduz kanpoko eragiketak</i>
95. Operaciones en términos especiales	<i>Baldintza berezietako eragiketak</i>
96. Apertura	<i>Irekiera</i>
97. Operaciones en mercado de picos	<i>Apurren merkatuko eragiketak</i>
98. Fluctuaciones autorizadas	<i>Gorabehera baimenduak</i>
99. Miembro del mercado	<i>Merkatukidea</i>
100. Mercado de lotes	<i>Erloen merkatua</i>
101. Entidades adheridas al servicio de compensación y liquidación	<i>Konpentsazio eta likidazio zerbitzuari atxikitu elkarteak</i>
102. Nuevo servicio de compensación y liquidación	<i>Konpentsazio eta likidaziorako zerbitzu berriak</i>
103. Contrapartida de títulos	<i>Tituluen ordaina</i>
104. Sociedad de contrapartida	<i>Ordain-elkartea</i>
105. Opciones sobre divisas	<i>Dibisekiko aukerabideak</i>
106. Horario de contratación	<i>Kontratazio ordutegia</i>
107. Boletín de cotización	<i>Kotizazio buletina</i>
108. Parte de operaciones	<i>Eragiketen gaztigua</i>
109. Resguardo de suscripción	<i>Erospidearen ordezkio agiria</i>
110. Póliza de suscripción	<i>Erospidearen poliza</i>
111. Vendí	<i>Salgutakoaren agiria</i>
112. Póliza de operaciones de contado	<i>Eskudiruzko eragiketaren poliza</i>

**Bolsa de Bilbao**

Jose Luis Damborenea Ortiz de Zarate  
Consejero - Director General

EUSKALTZAINDIA  
Sr. D. Jean Haritschelhar  
Presidente  
Plaza Barría, 15  
48005 BILBAO

EUSKALTZAINDIA	
ERIKI GORRIKOA ETX. LEHIA BASKA	
ACADEMIE DE LA LANGUE BASQUE	
Bilbo-Erregistro orokorra	
1992	URT. 8
SAPRERA	
zenb. 52	

Bilbao, 2 de Enero de 1.992

Distinguido Señor:

Acuso recibo, por medio de la presente, del texto definitivo aprobado por la Academia, del "Vocabulario bursátil" que les remitimos.

Quisiera agradecerle la rapidez en los trámites de elaboración del citado vocabulario ya que soy consciente de las dificultades que entraña la incorporación de nuevos términos y vocablos, en especial de los que como los bursátiles, tienen especificidad propia.

En breve plazo incorporaremos a nuestro Boletín de Cotización los términos remitidos, sumandonos así al proceso de normalización lingüística de Euskal Herria.

Quedo de usted afectuosamente,